

BIRIBILKO 2012-2013 IKASTAROEN EBALUAZIOA

Biribilko 2013-2014 ikastaroetan parte hartu duten merkatariak egindako balorazioaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu jarraian.

I.- 2013-2014 Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu nagusiak

1. ESKAINITAKO IKASTAROAK

A. EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA		
Hartzaileak	Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.	
Helburua	Ahozko oinarrizko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.	
Iraupena	87 ordu.	
Ordaindu beharreko matrikularen prezioa	87,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.	
DATAK Bi aukeretako bat hautatu	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean 2 egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2013-10-7 Amaiera: 2014-5-21	Astelehen eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:15 -9:45 2. Eguerdiz: 14:15 -15:45
2. Aukera: Hasiera: 2013-10-8 Amaiera: 2014-5-29	Astearte eta Ostegunak	1. Goizez: 8:15 - 9:45 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45
B. EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA		
Hartzaileak	Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.	
Helburua	Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.	
Iraupena	100 ordu.	
Ordaindu beharreko matrikularen prezioa	100,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.	
DATAK Bi aukeretako bat hautatu	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean 2 egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2013-10-7 Amaiera: 2014-6-23	Astelehen eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:00-9:30 2. Eguerdiz: 14:15- 15:45
2. Aukera: Hasiera: 2013-10-8 Amaiera: 2014-6-26	Astearte eta Ostegunak	1. Goizez: 8:00-9:30 2. Eguerdiz: 14:15-15:45

2. BIRIBILKO IKASTAROETAN MATRIKULATZEKO INFORMAZIOA

Matrikulatzeko epea	2012ko irailaren 12tik 28ra arte.
Matrikula egiteko eta klaseak hartzeko lekua	<p>Matrikulatzeko interesa duten pertsonak ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joan behar dute. Klaseak ere bertan emango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bilbo Zaharra, Posta Kalea, 8. (Tfona: 94 4158292) • Indautxu AEK. Urkixo Zumarkalea, 88 (Tfona: 94 4413474) • Juan Mateo Zabala, Gordoniz Kalea, 22 (Tfona: 94 4221388) • Matxintxu AEK, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tfona: 94 4752233) • Lizardi AEK, Txakur Kalea, 1 (Tfona: 94 4168200)

I. Taula: Biribilko 2012-2013 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (87 ordukoa) ...	91	67,4
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (100 ordukoa)	44	32,6
Klase egunak	Astelehen eta asteazkenak.....	51	37,8
	Astearte eta ostegunak	84	62,2
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:15-9:45	38	28,1
	Eguerdiz: 14:15-15:45	97	71,9
GUZTIRA		135	100,0

Iturria: Siadeco, 2013


2012-2013 ikasturtean, guztira 135 izan dira Biribilko ikastaroetan matrikulatu diren merkatariak, aurreko ikasturtean baino %16,4 gehiago. Horietatik gehienak euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroetan matrikulatu dira (10etik ia 7). Guztira, 11 ikasle talde osatu dira: 7 oinarrizko ikastaroan eta 4 hobetzekoan.

10 ikasletik ia 6k astearte eta ostegunetan aukeratu du klaseetara joatea eta 4k astelehen eta asteazkenetan.

Ikasleen gehiengo nabarmena (%72) eguerdiko ordutegian (14:15etatik 15:45etara) joan da klaseetara eta %28 goizekoan (8:15etatik 9:45etara).

2.- Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak

1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera - bilakaera (%)




Iturria: Siadeco, 2013.

Euskara ikastaroetan parte hartu duten Bilboko merkatarien artean gehienak emakumezkoak izan dira, hamarretik ia zortzi (% 77,1) hain zuzen ere.

Joera hau bat dator aurreko ikasturteetan antzemandakoarekin.

2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera - bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2013.

Adinaren ikuspegitik, merkatari horien batez besteko adina ia 42 urtekoa da, gizonezkoetan lau urte eta erdi altuagoa (44,7 urte) emakumezkoetan baino (40 urte). Matrikulatutako hamar ikasletatik lauk 31-40 urte bitartean dituzte, hiruk 41-50 urte bitartean, eta bik 51 urte edo gehiago. 30 urte baino gutxiago dituztenak ia %10 dira. Beraz, adin multzo desberdinetako ikasleez osatutako taldeak izan arren, 31-50 urte artekoak nagusitzen dira.

Datuok aurreko urtekoarekin alderatuz gero, aipagarriena 30 urtez beherakoek pisua irabazi dutela da eta aldiz, gainerako adin taldeen ehunekoak zertxobait jaitsi direla, aldeak txikiak badira ere.

3.- Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen auzunea

15. Taula: Ikasleek lan egiten duten establezimendua jarduera adarraren arabera, ikastaro motari jarraiki


Jarduera adarra	Ikastaro mota				GUZTIRA	
	Oinarrizko ikastaroa		Hobetzeko ikastaroa			
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Elikagai freskoak	6	7,5	1	2,6	7	5,9
Elikagai lehorrak	5	6,3	1	2,6	6	5,1
Autozerbitzua/supermerkatua	3	3,8	2	5,3	5	4,2
Drogeria, lurrin-denda, farmazia produktuak	9	11,3	5	13,2	14	11,9
Jantziak eta oinetakoak	20	25,0	13	34,2	33	28,0
IKT ekipoak	3	3,8	-	-	3	2,5
Altzariak eta etxeko artikuluak	8	10,0	5	13,2	13	11,0
Kultur eta aisialdirako artikuluak	3	3,8	7	18,4	10	8,5
Bestelako produktuak	13	16,3	2	5,3	15	12,7
Zerbitzuak	10	12,5	2	5,3	12	10,2
GUZTIRA	80	100,0	38	100,0	118	100,0

Iturria: Siadeco, 2013

Hamar euskara ikasleetatik ia 3k jantzi edo oinetako-denda batean egiten dute lan (%28,0); 10etik 1ek "bestelako produktuak" eskaintzen dituen denda batean egiten du lan (optika, estankoa, natur/belardenda, argazki-denda e.a.) (%12,7); beste batek drogeria, lurrin-denda edo farmazia batean (%11,9k); beste batek altzari edo etxeko artikuluetako denda batean (%11,0) eta beste batek zerbitzu establezimendu batean (%10,2) (ileapaindegia, bidai-agentzia, aholkularitza, albaitaritza, telefono konpainia, etab....). Gainerako jarduera adarren pisua baxuagoa da.

Bilakaerari dagokionez, aurtun gora egin du nabarmen jantzi eta oinetako dendetako langileen pisuak (2009-2010 ikastaroan izan zuen pisura itzuli da), eta jaitsi egin da aldiz, bai bestelako produktu etako establezimenduetakoak, bai zerbitzuetakoak ere. Gora egin du baita ere drogeria, lurrin-denda eta farmazietako langileen pisua.

6. Grafikoa: Ikasleek lan egiten duten establezimendua kokatuta dagoen auzoa (frekuentzia nagusien rankinga) (%)




Iturria: Siadeco, 2013

Hamar ikasletik bi pasatxok Zazpi Kaleetan kokaturiko establezimendu batean egiten dute lan (%22,0), eta beste bik Indautxun kokaturiko batean (%20,3). Hamarretik batek Abandon egiten du lan (%11,9) eta beste batek Santutxun (%11,0). Gainerako auzoetan lan egiten dutenak gutxixeago dira.

4.- Euskara ikastaroetan matrikulatzeko motibazioa

7. Grafikoa: Euskara ikastaroan matrikulatzeko arrazoi nagusia (%)



Iturria: Siadeco, 2013

Multzorik handienak (%42,3k) euskara ikasteko edo euskara ikasten jarraitzeko gogoak bultzatuta eman zuela izena erantzun du (euskara zein esparrutan erabiltzeko nahi duten zehaztu gabe). Horien artean daude, bai, "euskara ikastea" besterik erantzun ez dutenak (%25,4) (aurretik gutxieneko mailarik baduten ala ez zehazten ez dutenak), eta "ikasten jarraitzea, hobetzea" erantzuten dutenak (%16,9).


Euskara esparru batean ala bestean erabiltzeko nahi duten zehazten dutenak ere badira, eta matrikulatutakoen %20,3k lanbidearekin loturiko alderdiren bat aipatzen dute ikastaroetan parte hartzeko arrazoi nagusi gisa -"interes-profesionala" deitu dioguna- ("bezeroekin hitz egin", "lanean euskaraz egin ahal izatea"...)

Ikasleen %17,8k "interes pertsonal" gisa sailkatu ditugun arrazoiak eman dituzte ("seme-alabei etxerako lanetan lagundu", "lagunekin hitz egin", etab...); eta beste %8,5ek "interes pertsonal eta profesional" modura sailkatu ditugun arrazoiak aipatu dituzte ("seme-alabekin eta bezeroekin hitz egin ahal izatea",...).

Aurreko datuok erakusten dute beraz, esplizituki, euskara ikasteko arrazoi nagusi gisa interes profesionalarekin (soilik edo pertsonalekin batera) loturiko alderdiren bat aipatu dutenak %28,8aren inguruan kokatzen direla.

Ikasle multzo bat ere bada, (%7,6) ikastaroen ezaugarriak animatuta matrikulatu zela dioena ("ordutegia", "erritmoa", etab.)

5.- Euskara ikastaroen egindako balorazioa




Euskara ikasleek ikastaroaren alderdi desberdinei emandako batez besteko puntuaketa ona da zalantzarik gabe. Batez besteko orokorra 8,3 da, eta alderdi desberdinei emandako puntuazio guztiak 9,2 eta 7,3 artean kokatzen dira. Ikasleek oinarrizko ikastaroari emandako batez besteko puntuaketaren eta hobekuntzakoari emandakoaren artean apenas dago alderik: 8,3 eta 8,2 hurrenez hurren.

Puntuaketarik altuena lortzen duten 2 alderdiak (9 puntutik gora hain zuzen), irakasleak eta ikasle taldea dira. Euskaltegiaren kokapenari buruzko balorazioa ere (8,7), batez bestekoaren gainera kokatzen da. Batez besteko orokorraren inguruan kokatzen dira beste 4 alderdi: ordutegia, irakaskuntza sistema, prezioa eta irakatsitako edukiak. 8 puntu inguruko balorazioa jaso dituzte ondoko hiru alderdiek: ikastaroak emateko datak, erabilitako materialak eta matrikulatzeko prozedurak eta pixkatxo bat beherago gelditu da ikastaroen iraupenak lortutako puntuazioa (ikastaroa labur geratzen dela jaso izan da, ordu gehiagokoa izan beharko lukeela adieraziz). Puntuaziorik baxuena, klaseko ikasleen euskara mailaren homogeneotasunak jaso du (7,3)

Irakasleen balorazioa ere positiboa izan da (batez besteko orokorra 7,6 puntukoa). Irakasleek puntuaziorik altuena ikastaroen prezioari eman diote (8,8 puntu) eta bigarren altuena ikasleen interesa eta parte-hartzeari klaseetan (8,6). Irakasleen puntuaziorik baxuena klaseko ikasleen euskara mailaren homogeneotasunak jaso du (6,4), ikasleen artean bezala.

6.- Ezagutzan pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz




Iturria: Siadeco, 2013.

Bi ikastaro motetan parte hartu duten ikasleek aurrerapen adierazgarria igarri dute euren ahozko nahiz idatzizko euskararen ezagupen mailan ikastaroak amaitu ostean:

- Oinarrizko nahiz hobetzeko ikastaroa egin dutenek, ikastaroari esker, ahozko eta idatzizko gaitasunean egindako aurrerapena antzekoa dela sentitzen dute.
- Oinarrizko ikastaroa egiten dutenek antzemandako aurrerapena zertxobait handiagoa da hobetzeko ikastaroa egin dutenek antzemandakoa baino.

7.- Euskara ikasten jarraitzeko interesa eta aholkatze-maila beste merkatariek ikastaroetan parte har dezaten



Ikastaroetan ibilitako ikasleek, datorren ikasturtean Biribilko ikastaroetan berriz ere matrikulatzeko agertutako interes-maila, altua dela esan daiteke: Otik 10erako eskala baten 8,8koa hain zuzen ere. Interes-maila hori, oinarrizko ikastaroa egin dutenen artean, hobetzeko ikastaroa egin dutenen artean baino altuxeagoa da (8,9 eta 8,5 hurrenez hurren).

Aurtengo ikasturtean, datorren ikasturtean Biribilko ikastaroetan berriz matrikulatzeko ikasleek adierazitako interes-maila orokorra bat dator 2011-2012 ikasturtean adierazi zutenarekin: 8,8. Beraz, Biribilko ikastaroek eragindako interes-mailari eutsi egiten diotela esan daiteke.

Bestalde, aurtengo joandakoei, ikastaro horietara joan daitezkeen aholkatuko liekete beste merkatarari batzuei modu adierazgarrian: hain zuzen ere, Otik 10era doan eskalan batean, 8,8 puntukoa da aholkatze-maila hori. Gainera, aholku hori, maila berekoa da oinarrizko zein hobekuntzako ikastaroa egin duten ikasleen aldetik.

Irakasleei dagokienez, Otik 10erako eskala batean, 7,7ko batez besteko interesa agertzen dute datorren ikasturtean ere euskara ikastaro hauek ematen jarraitzeko, beraz, irakasleen asebetetze-maila Biribilko ikastaroekin nahikoa altua dela esan daiteke.